# Donejakue bidea Euskadin
## El Camino de Santiago en Euskadi




## Gomendioak
### RECOMENDACIONES

Planifikatu hurrengo eguneko etapa: Erromesen aterpe asko udan bakarrik irekitzen dituzte

Komeni da Bidea bakarrik ez egitea.

Ez ahaztu dokumentazioa, kredentziala eta dirua –edo kreditu-txartela–, eta kontu handia izan baliozko objektuekin.

Eraman etapa bakoitzerako janari eta edari nahikoa eta larrialdietako botika-kutxa.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Komeni da mugikorraren bateria ongi beteta eramatea.

Jarri arreta: zenbaitetan gezi horiak aurkituko dituzu, seinaleztapen ofizialarekin bat ez datozenak. (Mapan - - - - - -)

Errespetatu ingurunea eta gainerako erromesak.

*Planifica la etapa del día siguiente: Muchos albergues de peregrinos sólo abren en verano.*

*Es aconsejable realizar el Camino en compañía.*

*No olvides documentación, credencial y dinero –o tarjeta de crédito- y ten cuidado con los objetos de valor.*

*Lleva comida y bebida suficiente para cada etapa y botiquín de urgencia.*

*Lleva calzado y ropa adecuado teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Es aconsejable llevar la batería del móvil bien cargada.*

*Presta atención: en ocasiones encontrarás flechas amarillas que no coinciden con la señalización oficial. (En el mapa - - - - - -)*

*Respeta el entorno y a los demás peregrinos.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

*Bide zatia / Tramo*

# Markina-Xemein > Munitibar

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

km 0 ····· **MARKINA-XEMEIN**. Gernika-Lumorantz aterako gara, Atxondoko kiroldegiaren alboko bidegorriari jarraituz. Bidegorria amaitzen denean zebra-pasagune bat zeharkatuko dugu eta kontserba-fabrika baten atzealdean Erdotzako Andre Mariaren baselizara bideratuko gaituen bidexka hartuko dugu. Handik hurbil, errepidearen alboan, Santutxuaren gurutzetokia dago. Bidegorriaren tarte baten alboan jarraituko dugu, ibaiaren eta industrialde baten artean. Tartea amaitzen denean, erortzear dagoen Kareagako dorretxea aurrez aurre izango dugu. Eskuinaldean Erdi Aroko zubia gurutzatuko dugu eta handik pixka batera ezkerraldean dagoen hesi bat gurutzatuko dugu, ibaiarekiko paraleloan jarraitzen duen bide zahar bati jarraituz Iruzubietako gunera iritsi arte.

km 3 ····· **IRUZUBIETA**. Bolibarrerantz aterako gara Arnola jatetxearen inguruan hasten den pista batean gorantz joanez, eta Altzagako auzoa osatzen duten baserri batzuetara iritsiko gara; han, eskuinalderantz joango gara pinudi batean sartuz eta Alegriako zelaietaraino jaitsiz. Hemendik errepideraino jaitsiko gara eta handik pixka batera utzi egingo dugu, Simon Bolibar Museoaren albotik igaro ondoren plazan amaitzen den auzo-bidera sartzeko. Errepidea gurutzatuko dugu eta aurrerantz jarraituko dugu garai batean kolegiata izan zen Ziortzako Monasteriora igotzen den galtzadara iritsi arte, eta bertan erromesen ostatua eta aterpetxe bat aurkituko ditugu.

km 6,2 ····· **ZIORTZAKO MONASTERIOA / KOLEGIATA**. Monasterioa atzean utziko dugu, asfaltatuta dagoen pistari jarraituz. Seinaleak jarraituko ditugu dagoeneko baso-pista bihurtu den pistan, errepide alboan dagoen Gorontzugaraiko gainera iritsi arte. Ezkerraldetik jarraituko dugu asfaltatuta dagoen auzo-bide bati jarraituz Urionako auzora iritsi arte. Azken etxearen albotik igaro ondoren, lehendabizi ezkerraldean ikusiko dugu hesi bat zeharkatuko dugu eta pixka bat aurrerago beste hesi bat, eta ondoren Gerrikaitzera doan bidexka bat jaitsiko dugu.



KMZ

GPX

km 0 ····· ***MARKINA-XEMEIN**. Salimos hacia Gernika-Lumo por el carril bici (en euskera bidegorri) junto al polideportivo Atxondo. Cuando éste termina, cruzamos un paso de cebra y tras una fábrica conservera tomamos el sendero que nos conduce a la ermita de Ntra. Sra. de Erdotza. Cerca, junto a la carretera, queda el humilladero del Santutxu. Seguimos junto a un tramo de bidegorri que discurre entre el río y un polígono industrial. Cuando éste acaba, la casa-torre de Kareaga, en ruinas queda a un paso frente a nosotros. Cruzamos el puente medieval a la derecha y al poco cruzamos un cercado a la izquierda para tomar un antiguo camino que discurre paralelo al río hasta llegar al pequeño núcleo de Iruzubieta.*

km 3 ····· ***IRUZUBIETA**. Salimos hacia Bolibar ascendiendo por una pista que surge junto al restaurante Armola, hasta llegar a los caseríos que forman el barrio de Altzaga; giramos a la derecha para entrar en un pinar y descender a las campas de Alegria. Desde aquí bajamos a la carretera y la dejamos poco después para acceder al camino vecinal que confluye en la plaza, tras pasar junto al museo Simón Bolibar. Cruzamos la carretera y seguimos de frente hasta alcanzar la calzada que asciende hacia el Monasterio de Ziortza, antigua colegiata, donde encontraremos una hospedería de peregrinos y un albergue.*

km 6,2 ····· ***MONASTERIO/COLEGIATA DE ZIORTZA**. Dejamos el monasterio atrás, continuando por pista asfaltada. Seguiremos las señales por la pista, ya forestal, hasta el alto de Gorontzugarai junto a la carretera. Continuamos a la izquierda por un camino vecinal asfaltado hasta el barrio de Uriona. Al pasar junto a la última casa cruzamos primero un cercado que veremos a la izquierda y poco más adelante otro, tras el cuál bajaremos por una senda hacia Gerrikaitz.*



*argazkia / foto: Kiñuka*



eu es

# DONEJAKUE BIDEA
# CAMINO DE SANTIAGO

*Kostaldeko Bidea* 5 *El Camino de la Costa*

## MARKINA-XEMEIN
## GERNIKA-LUMO

Km. 24,8 | 772m. | 6h. 50’

UNESCO
United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

PATRIMONIO MUNDIAL · WORLD HERITAGE · PATRIMOINE MONDIAL
**Routes of Santiago de Compostela:**
***Camino Francés* and Routes of Northern Spain**
inscribed on the World Heritage List in 1993

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Hasiera gutxi daude Markina-Xemeingo irteera bezain suspergarriak. Lehenik, Bolibarko herri idilikoa, eta gero, Bizkaian bakarra den monumentu erlijiosoa: Ziortzako Kolegiata zaharra, bederatzi mende baino gehiago daramatzana Santiagorantz doazen ibiltarien iraganaren lekuko izanik. Gorontzugaraiko basoa dugu azken landa-izaerako ingurunea jendeztatuta dauden ibar eta herrixka mordora itzuli aurretik, Gernikako herri historikorainoko bidean. Etapa honek trantsizio-tarteak izango ditu eta kilometro gutxi batzuk egin ondoren, hala Munitibarren nola Zarran, hainbat benta edo iturri aurkituko ditugu kantinplora betetzeko edo bertako jendearekin pixka bat hitz egiteko. Gernikako Juntetxea eta haritz historikoa, egun horretarako pentsa daitekeen saririk onena dira.

*Pocos inicios hay tan estimulantes como el que aguarda a la salida de Markina-Xemein. Primero, el idílico pueblo de Bolibar y, luego, un monumento religioso único en Bizkaia: la antigua Colegiata de Ziortza, que lleva más de nueve siglos siendo testigo del paso de caminantes que marchan hacia Santiago. Los bosques de Gorontzugarai serán la última concesión rústica antes de regresar a las vaguadas habitadas y aldeas arracimadas que se prologarán hasta la histórica villa de Gernika. La etapa regalará tramos de transición y cada pocos kilómetros, ya sea en Munitibar o en Zarra, encontraremos ventas o fuentes en las que poder llenar la cantimplora o cruzar palabras con las gentes del lugar. La Casa de Juntas y el histórico roble de Gernika es el mejor de los premios imaginables para esta jornada.*

*24,8 km* | *772 m* | *6h 50’*








## *Ez geratu ezagutu gabe!*
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Har ezazu atseden Ziortzako Monasterioan; UNESCOren Munduko Ondarearen Zerrendan dago, eta Kostaldeko Donejakue Bideko gune garrantzitsuenetako bat da. Paisaiari eta arkitekturari dagokionez xarma handia duen lekua da, baketsua eta lasaia.

*Tómate un respiro en el Monasterio de Ziortza, incluido en la Lista de Patrimonio Mundial de la UNESCO, uno de los hitos del Camino de Santiago de la Costa. La paz y la tranquilidad reinan en este lugar de gran atractivo paisajístico y arquitectónico.*





Goza ezazu Zarra (Mendata) eta Elexalde-Arratzu arteko bidea; Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren harizti onenetako baten itzalpean ibili ahal izango zara, bere galtzadaren zati bat eta Erdi Aroko zubi eder bat erakusten dizkigun bide zahar batean barrena.

*Disfruta del camino entre Zarra (Mendata) y Elexalde-Arratzu, donde podrás caminar a la sombra de uno de los mejores robledales de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, por un antiguo camino que nos muestra parte de su calzada y un bello puente medieval.*

Ibil zaitez Gernika-Lumoko kaleetan barrena eta hurbil zaitez Juntetxera, "Gernikako Arbola" mitikoa ikustera, euskaldunen sinbolo unibertsala izaki. Turismo-bulegoan aukera gehiago eskainiko dizkizute. Bisita ezazu faltik gabe!

*Callejea por Gernika-Lumo y acercarte a la Casa de Juntas, a contemplar el mítico "Árbol de Gernika", símbolo universal los vascos. En la oficina de turismo te propondrán muchas más opciones. ¡No dejes de visitarla!*



## *Bide zatia / Tramo* — *Munitibar > Gernika-Lumo*

km 10,2 **MUNITIBAR/GERRIKAITZ**. Andra Mariaren elizak Gerrikaitz herri zaharrerako sarrera markatzen digu. Espaloiari jarraituz Munitibarreraino jaitsiko gara, eta bertan plaza zeharkatuko dugu San Bizente Martiriaren elizara iristeko. Ezkerralderantz joango gara, Gernikarantz, Lea ibaia gurutzatu ondoren asfaltatuta dagoen auzo-bide bat hartuko dugu, eta Aldakara igoko gara. Pistari jarraituko diogu Astorkigana gaineraino. Errepidera iritsi gabe ezkerralderantz joango gara Urnatei baserrira jaisteko eta Bekoerrota baserriraino jarraitzeko. Aurrerantz jarraituko dugu, Telleria errekaren alboan doan bidexka bati jarraituz. Aurrerantz egingo dugu eta Berreinondoko baserrietara iritsiko gara, dagoeneko Mendatan gaudela. Golako ibaiaren parean doan auzo-bideari jarraituko diogu Zarrako auzora sartzeko errepideraino; ondoren hura utzi eta Gorriño baserrira eramango gaituen bidexka bat hartuko dugu. Baserriaren albotik igarotzen den bide asfaltatura iristen garenean eskuinalderantz joango gara Zarrako auzora jaisteko.

km 15,4 **ZARRA.** Zarrabenta taberna-jatetxea (gaur egun itxita dago) auzoaren goi ingurura eramango gaituen maldaren hasieran dago, eta han goian San Pedro baseliza aurkituko dugu, baita gertu dagoen Montalban Dorrerako desbideratzea ere. Mendi-hegalaren erdialdetik jarraituko dugu Zarra eta Arratzuko elizatea elkartzen zituen galtzada zaharraren lehengoratutako tarte batekin topo egin arte. Urdaibaiko harizti garrantzitsuena zeharkatuko dugu eta Artzubiko zubira iritsiko gara, eta hortik Elexalde Arratzuko guneraino igoko gara.

km 17,4 **ELEXALDE-ARRATZU**. Arratzuko Santo Tomas elizaren inguruan haranaren ikuspegi onak goza ditzakegu, ehun urtetik gora dituen arte baten azpian atseden hartzen dugun bitartean. Gurutzebidea jarraituko dugu Golako ibaiaren erriberaraino, eta bertan Olazarrako burdinola aurkituko dugu. Ibaia igaro ondoren igotzen hasiko gara eta lehen baserrira iritsi baino lehen eskuinaldean sortzen den bidexka bat hartuko dugu eta Marmiz auzora igoko gara. Marmizetik pista bat abiatzen da, eskuinalderantz, Burgogana mendiaren ekialdeko hegalean barrena zihoan bide zaharrari jarraituz. Bide hori baso-pista askok gurutzatzen dute Ajangizeko gunera iritsi aurretik, eta hortik Gernika-Lumora jaitsiko gara bide zaharrari jarraituz, Errenteriako portu-eremu zaharrera iritsi arte. Zubia igaro ondoren, San Joan, Urtarrilaren Zortzia eta Andra Maria kaleak hartuko ditugu udaletxeko plazara iritsi arte.

km 10,2 ***MUNITIBAR/GERRIKAITZ**. La iglesia de Andra Maria nos marca la entrada a la antigua villa de Gerrikaitz. Bajamos por la acera hasta Munitibar, donde atravesaremos la plaza para llegar a la iglesia de San Vicente Mártir. Giramos a la izquierda, dirección Gernika para tomar, una vez cruzado el río Lea, un camino vecinal asfaltado por el que subiremos a Aldaka. Continuamos por esta pista hasta el alto de Astorkigana. Sin alcanzar la carretera giramos a la izquierda para bajar al caserío Urnategi y seguir hasta el caserío de Bekoerrota. Continuamos de frente, por una senda que discurre junto al arroyo Tellería. Siguiendo su curso alcanzamos los caseríos de Berreinondo, ya en Mendata. Seguimos el camino vecinal paralelo al río Golako hasta la carretera de acceso al barrio de Zarra para dejarla poco después y tomar un sendero que nos llevará hasta el caserío Gorriño. Al llegar al camino asfaltado que pasa junto al caserío giramos a la derecha para bajar al barrio de Zarra.*

km 15,4 ***ZARRA**.El Bar-restaurante Zarrabenta (actualmente cerrado) se encuentra al comienzo de la cuesta que nos lleva a la zona alta del barrio, donde encontramos la ermita de San Pedro y el desvío a la cercana Torre de Montalbán. Continuamos la marcha a media ladera hasta encontrarnos con un tramo recuperado de la antigua calzada que unía Zarra con la anteiglesia de Arratzu. Atravesamos el robledal de más entidad de Urdaibai para llegar al puente de Artzubi, desde donde ascenderemos hasta el núcleo de Elexalde Arratzu.*

km 17,4 ***ELEXALDE ARRATZU**. Junto a la iglesia de Santo Tomás de Arratzu podemos disfrutar de unas buenas vistas del valle mientras descansamos bajo una encina centenaria. Seguimos el vía crucis hacia la ribera del Golako donde encontramos la antigua ferrería de Olazarra. Pasado el río comenzamos a subir y antes de alcanzar el primer caserío tomamos una senda que surge a la derecha y asciende hasta el barrio de Marmiz. Una nueva pista parte de Marmiz, hacia la derecha, siguiendo el antiguo camino que discurría por la ladera este del monte Burgogana. Son numerosas las pistas forestales que cruzan este camino antes de llegar al núcleo de Ajangiz, desde donde bajaremos a Gernika-Lumo siguiendo el viejo camino que llega hasta la que fue antigua zona portuaria de Errenteria. Tras pasar el puente, seguimos por las calles San Juan, Ocho de enero y Andra Maria, para llegar a la plaza del ayuntamiento.*

www.euskadituturismo.eus

## *Kontuan hartu beharrekoak:*
## A TENER EN CUENTA



- Arreta handia jarri behar da gurutzaguneetan eta trafiko handia izan ohi duten errepide-tarteetan (Bolibar, Zarra eta Ajangiz-Gernika).
- *Extrema la precaución en los cruces y pequeños tramos de carreteras de considerable tráfico (Bolibar, Zarra y Ajangiz-Gernika).*

## *Telefono interesgarriak*
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Uhagon Kulturgunea (Markina-Xemein)<br>*Uhagon Kulturgunea (Markina-Xemein)* | 946 166 303<br>665 212 689 |
| Bengola – Centro de Energías renovables (Gerrikaitz)<br>*Bengola – Natur Energia Interpretazio Zentroa (Gerrikaitz)* | 649 795 484<br>650 124 729 |
| Gernika-Lumoko Turismo Bulegoa<br>*Oficina de turismo de Gernika-Lumo* | 94 625 58 92 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago* | 94 679 20 99<br>687 529 606 |
| Bizkaiko Aterpetxezain Boluntarioen Elkartea<br>*Agrupación de Hospitaleros Voluntarios de Bizkaia* | 609 031 526 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | ((112)) SOS DEIAK |

